

30 zenbakia
2019ko abendua

bai

Bai Euskarari
Elkartearen aldizkaria

innobasque

Leire Bilbao

Innobasqueko zuzendari nagusia:

*“Bizi-kalitatea
bermatzeko
modurik onena
da berrikuntza”*



Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez

Esperimentatzeko garaia

Alor sozioekonomikoko eragileei zuzendutako galdera honekin eman genion hasiera urteari: prest al zaude pauso berriak emateko?

Bai Euskarari Elkarteak 2020-2022 Plan Estrategiko berria landu du, irekia, egokitzeko eta eraikitzen joango dena. Egindako lanketak, beraz, aurrera begira lagungarria izango den ekarpena eman du bi planotan: elkartearen eginkizun eta plangintza estrategikoari begira kontuan hartzeko elementuak zehaztu dira; eta horren guztiaren motorra eta muina den lantaldearen eboluziorako jarraibideak ere azalatu dira.

Oinarri sendoa dugu. Gure ekarpena eta lorpenak lagungarriak izaten ari dira alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko eta ekosistema horretan are sendoago egoteko lanean segitu beharko dugu, gure bereizgarritasunak agerian utziz eta horiei etekina ateraz. Bai Euskarari, ziurtagiri bat da. Baina hori baino askoz gehiago ere bada. Izan ere, gure izaera baliatuz, eremu berrietara iristeko erronka dugu eta, ziurtagiriarekin batera, gero eta eragin eta arrakasta handiagoa lortzen ari diren proiektuak, tresnak eta baliabideak lantzen, sortzen eta kudeatzen segitu nahi dugu euskaraz lan egiteko apustua egin duten alor sozioekonomikoaren eragileen eskura jartzeko.

Plan estrategikoan bere tokia eman zaio oraingo eta etorkizuneko Bai Euskarari Elkarteari. Esan bezala, elementu bereizgarriena Bai Euskarari ziurtagiria da, eta Elkartearen zentroan egongo da aurrera

begira ere. Noski! Horrekin batera, orain arte elkartek erakutsi du proiektu berriak sortzeko, esperimentatzeko eta garatzeko gaitasuna duela (Enpresarean, Lansarean lan-ataria, Euskaragileak, Lanabes, etab.), bai eta eragile sozioekonomiko desberdinen arteko loturak lantzekoa ere. Aurrera begira, aukera bat identifikatu da hor. Horretarako lokarri, erraztatzaile edo konektatzaile rola lantzeko eta garatzeko proposamena egin da. Orain arte landu izan da, esate baterako, ziurtagiridunen beharrei erantzuna eta irtenbidea eman zaienean (hornitzaileekiko lanketak, Enpresarean proiektuaren sorrera, etab.) edo komunitateko kideen arteko harremanak eta konexioak bideratu direnean. Hemendik aurrera berriaz landu eta esperimentatu nahi da, konexio posibleak identifikatzeko eta horietan eragiteko.

Horrekin batera, behaketa lanari ere bere lekua egingo zaio. Datozen beharrrak, joerak eta aukerak ahalik eta arinen identifikatu beharko ditugu, egoki erantzun ahal izateko. Batzuetan hortik proiektu berriak atera litezke eta baloratuko da elkartek berak kudeatu behar dituen edo beste batzuen esku utzi behar diren. Esperimentatzea da kontua, berritzea, beldurrik gabe. Berrikuntzak arlo sozioekonomikoan euskarazko espazioak argitzen, garatzen eta hedatzen jarraitzeko aukera ematen du. Euskara eta berrikuntzaren arteko konexioa ezinbestekoa da, oinarria sendotzeko eta alor sozioekonomikoaren aukera, behar eta erronkei erantzun ausartak eta eraginkorrak eskaintzeko.

Innobasque 03

Leire Bilbao.
Zuzendari nagusia

Kolaborazioa 06

Beñat Goitia eta Jon Gil.
Iluntze bat Gasteizen

Mintzodromoa 2019 08

#GasteizenBaiEuskarari

Bai Euskarari Elkarte 10

Zarautz

Gernika-Lumo

2019ko Entitate berriak

Euskaragileak 12

Ipar Euskal Herria 14

Komunitatea sendotzen

Plan estrategikoa 15

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarte Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez
Argazkiak:

Bai Euskarari Elkarte eta
Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010

baieuskarari.eus



Euskara eta berrikuntza bat eginda



Bai Euskarari Ziurtagiria jaso zuen abenduan Innobasque Euskal Berrikuntzaren Agentziak, Rober Gutiérrez Bai Euskarari Elkartearen zuzendariaren eskutik. Innobasqueko langileek parte hartu zuten ekitaldian, Leire Bilbao zuzendariarekin batera. 'Bidean' maila eskuratu du Innobasquek eta, horrela, aitortu nahi izan zaie erakundeari zein bertako langileei euskara euren egunerokoan txartatzeko egiten ari diren lana.

Leire Bilbao Innobasqueko zuzendariak azpimarratu zuen ziurtagiri honek "Euskara Batzordeko aurtengo helburua" betetzen duela eta erakundearen barruan euskaren erabileran sakontzeko "bultzada" dela.

Bestalde, Rober Gutiérrez Bai Euskarariren zuzendariaren esanetan, "berrikuntzak arlo sozioekonomikoan euskarazko espazioak argitzen, garatzen eta hedatzen"

jarrartzeko aukera ematen du eta Innobasqueko kideak animatu nahi izan zituen "alor sozioekonomikoan eragiten" jarrai dezaten. Era berean, gaineratu zuen "berrikuntza eta euskararen arteko konexioa ezinbestekoa" dela, gizartearen eta ekonomiaren aukera, behar eta erronkei "erantzun berritzaileak eskaintzeko oinarri sendoak sortzeko".

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Neurri handiko mekanizazioa

Ezago poligonoa, 21
HERNANI
T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Leire Bilbao

Innobasqueko zuzendari nagusia

“Barne mailan, euskara langileak batzen dituen lotura bat da”

Bai Euskarari Ziurtagiria jaso berritan, Leire Bilbao Innobasqueko zuzendari nagusiarekin egin dugu elkarrizketa. Berrikuntzaz, euskal ekosistemaz eta euskaraz aritu gara.



Innobasque, berrikuntzaren euskal agenzia zarete. Kontaiezaguz, zein dira zuen lan esparruak?

Innobasquek berrikuntza bultzatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan. Horretarako, modu sistematikoan, prospektiba barneratzen dugu hemengo erakundeen berrikuntza-prozesuetan eta zientzia, teknologia eta berrikuntza arloko politiketan.

Gainera, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ekosistema behatzen eta ebaluatzen dugu, erakundeen politika, tresna zein enplegurako eta gobernantzarako prestakuntzan eragina izateko berrikuntzaren aldeko inguru-nea bideratzeko baliagarria baita.

Bazkide diren gure erakundeekin batera, berritzen lagunduko dieten irtenbideak esperimintatzeko eta beharrak identifikatzeko laborategia ere bagara. Amaitzeko, Estatu mailan zein nazioartean aliantzak eta sareak finkatzen ditugu esperientziak partekatuzko, zerbitzuak hornitzeko, eta influentzia, posizionamendua eta eskala areago-

tzeko bitarteko gisa.

Zeintzuk dira dituzuen erronka nagusiak?

Gure erronka erakunde berritzaileen kopurua handitzea da eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainei (ETE) dagokienez.

Nola dago zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal ekosistema?

Horixe da gure indargune nagusieta-koko bat. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza indartsua, errotua eta inbertsio egonkorra dituen sistema dugu. Gainera, abantaila dugu berrikuntzaren aldeko apustua egiten duen kultura.

Zer behar daude gaur egun berrikuntzaren arloan?

Euskadiko berrikuntzaren ahulezia nagusia ETEetan dagoela identifikatu dugu. Zehatzago esanda, marketinarekin, pertsonen kudeaketarekin, negozio-eredu berriekin edo prozesuekin lotuta dago. Hortxe hobetzeko tarte handia dugu.

Zientzia, teknologia eta berrikuntza

bezalako hitzak entzuten ditugunean, arrotz egiten zaizkigu norbanako askori, enpresen edo administrazioaren kontua balitz bezala, baina zuen helburua ere bada pertsona guztiek partekatutako balio sistema eraikitzea. Nolabait, fokua pertsonengan ere jartzen duzue, ezta?

Berrikuntza pertsonak egiten dute. Gainera, berrikuntza ez da helburua bere horretan. Gure ustez, gure etorkizuna eta bizi-kalitatea bermatzeko modurik onena da berrikuntza.

Hazinnova ekimena abian jarri zenuen udan, SPRIrekin batera, en-

“Bai Euskararik Innobasqueren zerbitzu guztiak gure interes-taldeek eskatzen diguten hizkuntzan eskaintzeko helburura gerturatu gaitu”



presa txikiei berrikuntzarako pausoak ematen laguntzeko. Kontaiezaguzu zertan datzan ekimena.

Hazinnova profil berritzaile txikia duten enpresek berrikuntza arloko beren lehen urratsak modu arinean, errazean eta doakoan eman ditzaten sortu berri dugun zerbitzua da. Oso harro gaude ekimen honekin. Izan ere, hiru hilabete eskasetan, dagoeneko 200 ETE baino gehiagotara iritsi da, oso erabilgarria dela ikusten ari gara. Lehen aipatu dudan moduan, enpresa txiki eta ertainen berrikuntza maila hobetu beharra baitugu. Horiek osatzen dute gure enpresa-egituraren % 99.

Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu berri duzue. Zer eskaintzen dio Bai Euskarari Elkarrekin Innobasqueri?

Ohorea izan da guretzat Bai Euskarari

ziurtagiria eskuratzeko. Izan ere, duela hiru urte hasi genuen lana aitortu da bere bitartez. Bai Euskarari Innobasqueren zerbitzu guztiak gure interes-taldeek eskatzen diguten hizkuntzan eskaintzeko helburura gerturatzeko gaitu.

Zer leku du euskarak berrikuntzan?

Berrikuntza bultzatzeko egiten dugun lanaren bidez, euskara lan esparruan eta enpresetan barneratzen dugu. Bestalde, barne mailan, euskara langileak batzen dituen lotura bat da. Euskaraldia edo Korrika ekimenetan, besteak beste, parte hartu izan dugunean, ekimena Innobasquen lan egiten dugun pertsonen taldea kohesionatzen duen elementu gisa bizi izan dugu barne mailan.

Eta zuen erakundeetan, nola txertatzen duzue euskara?


Esan dudan moduan, Hizkuntza Politikako gure Plan Orokorraren azken helburua da gure zerbitzuak eskatzen diguten hizkuntzan eskaintzea: euskaraz eta gaztelaniaz. Euskararen erabilera areagotzeko, lehenengo eta behin barne mailako batzorde txikia baina aldi berean aktiboa sortu genuen. Hark osatu zuen hizkuntza-politikako plana helburu argiarekin eta zuzendaritza-taldearen laguntzarekin. Gerora, gure hizkuntza gure egunerokoan eta gure bazkideekin eta interes-taldeekin erabili ahal izateko urratsak ematen joan gara.

“Gure etorkizuna eta bizikaltatea bermatzeko modurik onena da berrikuntza”

Euskararen Egunean, “Alea, Arabako pasarteak” liburuxka aurkeztu zen Gasteizen egindako irakurraldian. Laboral Kutxako Kepa Ortiz de Urbinak eta Bai Euskarari Elkarteko Rober Gutiérrezek irakurri zuten Beñat Goitiaren testua.

Irudien egilea: Jon Gil

Iluntze bat Gasteizen



Iluntze hartan Gasteizen gertatuko zenak guztia aldatuko zuen betiko. Gasteiz ez zen gehiago Vitoria izango.

Ez naiz inoiz izan gertakari paranormalen jarraitzaile, are gehiago, eszeptiko izan naiz. Baina iluntze hartan gertatutakoa ezin da bestelako arrazoiekin azaldu.

Amonak esana zidan, Teleberriko eguraldiaren gizonak ekaitz “arraro samar” bat iragarria zuela Gasteizen, baina inork ez zion aparteko garrantzirik eman. Arratsaldeko 20:30ak inguruan, zerua hodei ilunez estaltzen hasi zen. Hezetasun usainak jarraitu zion eta ohiko tanta lodiak hasi ziren. Zerumugan tximistak ohi bezala, eta ur zaparrada. Baina, gaueko 21:00ak jotzeaz zirela, inoiz inork inon entzundako ezandarik handienak kolpatu zuen hiria.

Oinaren azazkaletatik sartutako korrante elektriko batek gasteiztar guztiei gerarazi zien bihotza. Burmuinean presio jasanezin bat, odola mantso eta lodi zainetan barrena, konor-

tea galdurik. Isiltasunak hartu zuen hiria. STOP. Guztiak STOP egin zuen.

Ordubete beranduago, gaueko 22:00etan, San Miguel elizako kanpaiek talka egin eta guztiak ezer gertatu izan ez balitz bezala jarraitu zuen. Buruko min lauso bat, ahanztura sentsazio labur bat, baina ez beste ezer.

Nire ondoan, bi ertzain. Eta bata besteari euskara batu jatorrean: “Hau buruko mina. Zer arraroa izan den hau, ezta? 22:00ak dira dagoeneko?”, eta besteak ere euskaraz erantzun “Lasai motel, sekulako hego haizea dabil eta badakizu, hego haizea ero haizea”.

Bitxia egin zitzaidan bi polizia elkarren artean euskaraz hitz egiten entzutea. Baina gaztetako aurreiritziei egotzi nien harridura, gazte nintzenean “edonor” ez baitzen polizia lanetan aritzen. Ordurako baina, modako lanbide bilakatua zen eta jatorri eta pentsamendu orotako gazteak alistatzen zirenez, ez

nion garrantzirik eman.

San Prudentzio kalean barrena, Florida zinemen paretik pasa nintzen eta estreinaldien karteletako batek atentzioa eman zidan. Belen Rueda, Macarena Garcia eta Eneko Sagardey ziren aktore nagusiak azaleko argazkian eta filmaren izenburua euskaraz: AMEK EZ DUTE. Eta izenburuaren azpian: *Katixa Agirrerren obran oinarritua*. Eta kartelaren gainean itsatsitako orri batek honela zioen: *“Proyección NO subtitulada en castellano”*.

Nahasmenaren eta barreguraren arteko sentsazio batek ilundu zidan begirada. Katixa Agirrerren liburu bat Espainiako aktore entzutetsuenek zinemaratua. Gasteizen, filma bat euskaraz eta gaztelaniazko azpigitulurik gabe ikusteko aukera. Zer arraio!

Karteldegia gainontzeko estreinaldiak begiratu eta guztiak ziren euskarazko filmak. Berriz ere, jaramonik ez egin eta Jaurlearitzak diruz lagundutako euskararen zinearen astea izango zela pentsatu nuen.

San Prudentzio kalean aurrera egin, eta lehen Guridi zinemek betetzen zuten lokaleko supermerkatuara abiatu nintzen. Kalea igaro bitartean, Uriarte izeneko agure aberats batek sortutako proiektu komertzial baten saltokien paretik pasa, eta McDonalds, H&M, Primark, Zara eta American Vintage-n erakusleihoe-tan mezu guztiak euskara hutsean.

Baina aurrera egin eta supermerkatu iristean, ez-tandak Gasteiz betiko aldatua zuela ohartu nintzen. Ez zegoen supermerkatu. Neoizko argi gorri batzuk zeuden dar-darka, alfonbra gorri bat lurrian eta ahobizi txapa soinean zuten bi atezain mardul atearen alde banatan. Hauxe zioten neoizko argi dotoreek: **GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA**.

Bi bikote gazte aretoan sartzeaz, biak ezagunak. Batzuk, irakaskuntzak Beasainetik Gasteizera ekarriak eta besteak Gasteizko Marianistas ikastetxean ikasitako abokatuak. Bi bikoteak areto berdinean.

Ametsetan nongoen, argi zegoen. Atximurka egin nion nire gibelari eta erreakziorik ez. Harramazka egin nuen lepoan odola eragiteraino eta ezer ere ez. Beharbada, ikusten ari nintzena egiazkoa zen.

Pareko liburu dendan sartzea erabaki nuen, gertatzen ari zenaren aztarna gehiagoren bila. Lehen ere euskarak bazuen

espazioa denda hartan, baina guztiz eraldatua zegoen. Orain euskarazko liburuak generoka bereiziak zeuden, Atxagaren *Nevadako egunak* narrazioen apalean eta Fidel Castroren biografia, biografien atalean. Ez nekien euskaraz idatzitako liburuak bereiz zitezkeenik.

Musikaren gunera jo eta bertan ere Liher-en azken diskoa rockean eta Izarorena pop-ean bereiziak zeuden. Eta apalaren izkina batean, beste genero bat izango balitz bezala, Sabina eta Novedades Carminha bata bestearen atzean, ESPAINIAR MUSIKA txartelaren azpian.

Paperen, kartulinen, txintxeten, margoen, errotulagailuen eta motxilen sekzioak igaro ondoren, liburu dendaren beste puntara iristea lortu nuen. Han, “Espainiar literatura” idatzia zuen kartel baten azpian zegoen Eva izeneko emakume bat, liburu baten aurkezpenaren tankera zuen ekitaldi itxurazko batean. Bakarrik zegoen, bere senarrak eta semeak lagunduta eta publikoa zirudien adineko gizon bakarra.

Ez badut gaizki gogoratzen, *Hiri zuri* baten inguruko nobela bat aurkeztera zihoan, baina ez zen inor ere aurkezpena hurbildu. Eva delakoak etsipen ikutu batekin, baina sorpresa handiko tonu handirik gabe senarrari *“Si es que ya les dije, a esta misma hora está Patxi Zubizarreta en Zuloa presentando libro y habrá colas hasta el Dublín”*.

Ez nuen ezer ulertzen. Liburutegiko arduradun batek aurkezpenari hasiera eman zion eta adineko gizonaren ondoan eseri nintzen. Ahopeka eta gaztelaniaz noski, *“Esta escritora es de Vitoria?”* galdetu nion. Gizonak zeharretik begiratu ninduen, mesfidati eta nire txundidurarako *“Ehh, barkatu, baina ez dut gaztelaniaz hitz egiten, hau zer da liburu aurkezpen bat? Gero luncha egongo da, ezta?”*

Beldurtuta atera nintzen liburu dendatik. Mundua iraulia zegoen eta inor ez zen horretaz jabetzen. Euskara hiriaren erdigunera ekarria zegoen, ez zen gutxi batzuen ghetto endogamikoa. Gutxitua zena handi zen orain. Eta lehen ahalguztidun zena, marginal zen orain.

Baztertua den zerbait hauspotzeko, ez da nahikoa bazterrean mantenduta elikatzea. Horrela, bizirik iraungo du bai, baina bazterrean.

Bitartean, tximistaren zain.



Gasteiz, hiri aktiboa eta euskalduna



Gasteizko Euskaraz, 1+1... Hamaika! ekimenaren barruan ospatu genuen azaroaren 28an #GasteizenBaiEuskarari mintzodromoa Oihaneder Euskararen Etxean. Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasleak izan genituen gurekin: Gamarrako Ostalaritza Eskola, Carmelitas Sagrado Corazón ikastetxea, Ekialdea BHI, Egibide, Mendizabala eta Marianistas ikastetxea.

Hiri aktiboa izan zuten mintzagai eta etorkizuneko Gasteiz irudikatu zuten gazteek. Gonbidatu berezia Gorka Urtearan alkatea izan zen eta Gasteizko etorkizuna euskaraz irudikatzen duela azaldu zuen, euskara baita "euskaldunon ezaugarri berezkoena" eta "lehen hitza beti euskaraz egitea" garrantzitsutzat jotzen.

Bai Euskarari Elkarateak antolatzen du mintzodromoa, Berritzegunearen laguntzarekin, Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren babesarekin, ikasleen arteko harremanak euskaraz sustatzeko eta bizitzako arlo ezberdinetan hizkuntzaren egoeraz eztabaidatzeko.



Mintzodromoko
argazkiak eta
laburpen-bideoa:





LEHEN HITZAK
BALIO
HANDIA DU

Erraztu
dezagun
euskarazko
kontsumoa

Euskaraz kontsumituz,
euskararen mapa
osatuko dugu.

#LehenHitzaEUS
Gehitu zaitez mapara



baieuskarari.eus



Ziurtagiri bat baino
askoz gehiago

Euskaraz lan egiteko eta bizitzeko bidean eredu dira Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateak

Euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean diharduten Euskal Herri osoko enpresek, saltokiek eta era guztietako entitateek osatzen dute Bai Euskarari komunitatea. Zabala eta anitza da komunitatea, eta bada guztiak batzen dituen bereizgarria: Bai Euskarari Ziurtagiria. Alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko eragitea da Bai Euskarari Elkartearen xedea eta bide horretan eredu dira komunitatea osatzen duten entitate guztiak.

Gaur egun 1.351 ziurtagiridunek osatzen dute komunitatearen mapa. Batzuk hizkuntzaren integrazio prozesuan aurreraturik daude eta beste batzuek, aldiz, orain hasi dute abentura. Guztion bidelagun izan nahi du Bai Euskarari Elkarteak, erraztasunak, baliabideak eta proiektu berriak eskainiz, zein entitateen urratsak aitortuz eta sarituz. Guztiok elkarlanean euskararen bidea argitzen jarrai dezagun.

Herriz herriko elkarlana

Alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko bidean behar-beharrezkoa da administrazioarekin elkarlanean aritzea eta Bai Euskarari elkarteak urteak daramatza tokian tokiko zenbait administrazioarekin lanean. Horren adibide dira Zarautzen eta Gernika-Lumon azaroan berritu diren hitzarmenak.

Zarauzko udalbatza aretoan ospatu zen azaroaren 29an Bai Euskarari Ziurtagiriaren hitzarmena sinatzeko ekitaldia, Bai Euskarari Elkartearen zuzendaria den Rober Gutiérrez, Xabier Txurruka Zarauzko alkatea eta Irune Urbieta Euskara zinegotziaren parte hartzearekin. Zarautzen 34 establezimenduk dute Bai Euskarari Ziurtagiria eta orain dela 14 urte abiatu zen Zarauzko Udalaren eta Bai Euskarariren arteko lankidetzak.

Egun berean, azaroaren 29an egin zen Gernika-Lumon Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa-ekitaldia, 24 enpresa, saltoki eta entitateek euskaraz lan egiteko eta bizitzeko aukerak sortzen egiten duten lana aitortzeko. Hamabigarren urtea da ekitaldia antolatzen dela Bai Euskarari Elkarteak, Gernika-Lumoko Euskara saila, Busturialdean Euskaraz Bizi elkarteak, Gernikako AEK, Artez Euskara Zerbitzua eta Seber Altube Ikastolarekin elkarlanean.



NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOAK



bai euskarari
f t i n s
Ziurtagiri/bai/baio
aazkoz gaitzago

2019ko entitate berriak

2019an 64 entitate berri batu dira Bai Euskarari komunitatera. Ongi etorri guztioi!

ABS ikus-entzunezkoak (Gipuzkoa) <i>Euskararen bidean</i>	Ederra Irurzun Farmazia (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Koxka (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
ABS-FLUGE EUSKADI S.L. (Gipuzkoa) <i>Euskararen bidean</i>	Elduaien Hizkuntza Eskola - Gros (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	La Burundesa S.A.U (Nafarroa) <i>Euskararen bidean</i>
Aldama Arrandegia (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Elduaien Hizkuntza Eskola - Irun (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	La Globería (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Amorrortu Osteopatia Fisioterapia (Araba) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	Elhuyar Aholkularitza (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua eta lana euskaraz</i>	Laugara G.Z. (Gipuzkoa) <i>Euskararen bidean</i>
Andere Produktu Profesionalak - Azpeitia (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	ERABIL Kolektiboa (Lapurdi) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	LURBERRY Fruitu txikien landare mintegi ekologikoa (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>
Asesoramiento y formación Ikasauto S.L (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>	Eric Arbide-Vignarte hortz-artatzailea (Lapurdi) <i>Euskararen bidean</i>	Meridiano Taberna (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
AULKIA S.L.U. (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	Etxabe Bereziak (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Museo del Organo Jatetxe Begetarianoa (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Aztiker Soziologia Ikerguna (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	FORNAYU Trade (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Nuevo Futuro - Araba (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Bacalao Giraldo - Angulema (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Gamarra Ostalaritza Eskola (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Oiandi Cafe-bar (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Bacalao Giraldo - Basoa (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Gasteizko Alkartetxe taberna (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Orain Taberna (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Bacalao Giraldo SL (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Global Action Plan Euskadi (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>	Oreka IT - Nafarroa (Nafarroa) <i>Zerbitzua euskaraz Nafarroa</i>
Barañaingo Jauzi Taldea <i>Zerbitzua euskaraz Nafarroa</i>	HAUDA Komunikazio eta Marketing Agentzia (Nafarroa) <i>Euskararen bidean</i>	Peio Beaucoueste mugimendu artatzailea (Lapurdi) <i>Euskararen bidean</i>
Betiko Ikastola (Bizkaia) <i>Zerbitzua eta lana euskaraz</i>	HIK HASI (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua eta lana euskaraz</i>	Poolsport Soluciones, S.L. (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>
BIOARARTEKO Landa-Ingurumen zerbitzuak (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	Holding Hostelería S.A. (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>	San Frantses Xabier eskola (Lapurdi) <i>Euskararen bidean</i>
Bionekazaritza (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	IFAP (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>	Unaiarena Aseguruak - Arana (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Blasenea Mintegi Ekologikoak (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	Innobasque (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>	Unaiarena Aseguruak - Aranzabal (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Camping Angosto (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Irribarre Zabalhana (Araba) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	Urgatzi S.L (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>
Centro de Diagnosis de Vehiculos Beurko Check, SL (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>	Iturrienea Jatetxea (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Viajes Marfil S.L. (Nafarroa) <i>Euskararen bidean</i>
Centro Estudios Mikeldi Ikastetxea (Bizkaia) <i>Euskararen bidean</i>	Iturrieta Sagardotegia (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Vinylorra (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
Comersitrans SL (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Jaizubia Obras y Servicios S.L. (Gipuzkoa) <i>Euskararen bidean</i>	ZINEA SORTZEN (Gipuzkoa) <i>Zerbitzua eta lana euskaraz</i>
ed3n Taberna (Araba) <i>Euskararen bidean</i>	Jatorkin Al-Nahda (Gipuzkoa) <i>Euskararen bidean</i>	Zurrupa Taberna (Araba) <i>Euskararen bidean</i>
	Kokoak (Bizkaia) <i>Zerbitzua euskaraz</i>	

Jarrai dezagun euskararen mapa osatzen: <https://baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak>

Enpresentzat eredu izan nahi duten dokumentuak eta programak sortu dituzte Euskaragileak

Euskaragileak proiektua 2015ean jaio zenetik lanean aritu dira batzordea osatzen duten enpresak. Euskaragileak, eredu izateaz gain, eragile aktibo ere izan nahi dute eta eragite horretarako zenbait tresna sortzen jardun dute. Horren adibide dira beste enpresa batzuentzat eredu izan nahi duten dokumentu hauek: hornitzaileei bidaltzeko gutun-eredua; langile berrien harrera-plan eredu; eta hezkuntza zentroen eta enpresen arteko hitzarmen-eredua.

Bai Euskarari Elkartek du Euskaragileak proiektua sustatzearen ardura eta enpresa hauek osatzen dute batzordea: Cikautxo, Batz, Danobat Group, Eika, Elay, Elkar, Fagor Taldea, Goizper Group, IMH, Irizar, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea eta Orkli.

Langile berrien harrera-plana

Enpresa guztietan langile berriak kontratatu eta be-
rauek euren jardunean kokatzeko prozesuak garrantzia berezia du. Langile horiek enpresan egoki integratzeko eta ahalik eta arinen euren zereginak behar bezala bete ahal izateko prozesua izaten da hori.

Prozesu horretan garrantzia berezia du enpresaren baitan euskararen normalizazioari eta, oro har, hizkuntzen kudeaketari ematen zaion garrantzia eta tratamendua transmititzeak. Horretarako, langile horiei begira garatu ohi den harrera-planean hizkuntzaren aldagaia lantzeko eredu bat proposatzea erabaki zen Euskaragileak batzordean.



Ikusi eredu guztiak:



EUSKARA ETA KULTURA HERRIAREN GEROA




ekar
fundazioa

Ikastetxeekin hitzarmen-eredua

Euskaragileen batzordean enpresek ikastetxeekin duten harremanari garrantzia berezia eman zaio. Batetik, bi erakundeen arteko hizkuntza-harremanen ikuspegitik, baina batez ere, lan-mundura jauzia ematera doazen ikasle edota langile berriengan eragitearen ikuspegitik. Hori lantzeko, enpresen eta ikastetxeen arteko lankidetzak hitzarmenak adostea proposatzen da.

Osatu den hitzarmen-ereduan bi entitate horien arteko lankidetzarako eredu posible bat mahai gainerratu nahi da.



Hornitzaileentzako gutun-eredua

Enpresen jarduera euskaraz garatzeko eta lan-munduari euskalduntzean laguntzeko garrantzitsua da enpresek euren hornitzaile nagusiei zerbitzua euskaraz eskaintzeko eskaera luza-tea. Hornitzaileei bidaltzeko gutun-eredua sortu da.



EUSKARAGILETU PROGRAMA

ENPRESEN ESPERIENTZIAZ MAMITU ETA EUSKARAGILETU

NORTZUK DIRA EUSKARAGILEAK?

- Hitzarmenaren prozesua aztertzea, diruak eragitea.
- Euskararen normalizazio prozesuak eta haren eragileak eragitea.

INTERESGARRIA BESTE ENPRENTZAT

Euskaraz planak hobetzeko edo sortzeko. Zailtasunak aztertzea.

2:30 ordu

Ongi etorria eta sarrera. Enpresa bisita.

Bisita: enpresaren aurkezpena.

Bisita: Euskaraz planaren aurkezpena.

Bisita: Esperientzia partekatuz + gaude-esekek.

Barba eta kafea

EUSKARAGILETU PROGRAMA

PARTAIDEAK

HELBURUAK

Euskaragileen esperientzia eta eragileak bereziki.

Prozesuak aztertzea eta eragitea.

Laguntza eta aholku pertsonalizatuak.

2:15 ordu

Ongi etorria eta sarrera. Enpresa bisita.

Bisita: enpresaren aurkezpena.

Bisita: bidetxe-erantzaldia.

Bisita: Euskaraz planaren aurkezpena.

Barba eta kafea

A MULTZOKOAK

Euskaraz planaren aurkezpena.

B MULTZOKOAK

Euskaraz planaren aurkezpena.

PROZESUAREN ESPERIENTZIA ZABALA

GORABEHERRI AURRE EGITOKI ERAGITZE ETA JAKITURIA

IKASITOKOAREKIN ABERASTUTAKO ERAGITZEA

BATZORDEKO KIDEAK:

BATZ, ekar, ekrr, FAGOR, Enpresa Group, Irizar, Cepsa, orkli, Cepsa, M, M, M, M, M, M, Cepsa, ekka

bai

Euskaraz planaren aurkezpena


Euskaragiletu programa: bisitak eta kontakizunak

Euskaragileak euskararen normalizazio prozesuaren inguruko esperientzia zabala dute eta prozesu horrek izan ditzakeen gorabeherak eta horiei zer-nola aurre egin izan dieten ezagutzeak, baliu handiko jakituria eskaintzen die. Ezagutza eta esperientzia hori guztia partekatzeko sortu da Euskaragiletu programa. Euskaragileekin beste enpresa batzuen bisitak jasotzeko sarea osatu eta lanketa sistematizatu nahi da programa honen bidez.

Ipar Euskal Herriko komunitatea sendotzen

Ipar Euskal Herriko Bai Euskarari komunitatea hedatzeko eta sendotzeko lanean ari gara Bai Euskarari Elkartearen.

Irailetik, Zilia Heredia-Irigoyen da elkarteak Baionan duen teknikari berria eta Bai Euskarari ziurtagiria eta elkartearen gainerako proiektuak Ipar Euskal Herrian sustatzea da bere lana; baita ziurtagiria dutenekin hartu-emanen jarraitzea ere.



Gaur egun 198 entitatek osatzen dute Bai Euskarari komunitatea Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Geroz eta gehiago dira euskara erabiltzeko eta sustatzeko lanean ari diren enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak eta guztion artean osatuko eta zabalduko dugu.

Facebook orria

Bai Euskarari Elkartearen berriak ahalik eta gehien hedatzeko eta Iparaldeko komunitatea sendotzeko orri berezia sortu dugu Facebook sare sozialaren barruan: <https://www.facebook.com/BaiEuskarariIparaldea>

Hala, nahi duen orok bertan jarraitu ahal izango ditu elkartearen inguruko berriak. Era berean, entitateen arteko harremana ere sustatu nahi da eta edonork idatz dezake orrian bertan.

Lansarean.eus webgunearen aurkezpena

Pixkanaka ari gara zabaltzen Bai Euskarari Elkarteak dituen proiektu ezberdinak Ipar Euskal Herriko eragileen aurrean. Abenduan, adibidez, Lanbide Foroaren 2. edizioan parte hartu genuen Baionako Bernat Etxepare lizeoan. Bertan, Lansarean.eus euskarazko lan-atariaren aurkezpena egin genien lurralde eta lan-arlo ezberdinetako 70 profesional euskalduni.

Euskara hutsez dagoen lan-atari bakarra da Lansarean.eus. Alde batetik, enpresek hautaketa-prozesuak kudeatzeko aukera dute eta eskaintzen dituzten lanpostuetarako hautagaiak aurkitu ahal izango dituzte bertan. Bestetik, lan bila ari diren pertsonen enpresen lan-eskaintzen berri izan eta horietan izena eman dezakete.

LANsarean
bilalan

lansarean.eus

[@lansarean](https://twitter.com/lansarean)

[in lansarean](https://www.linkedin.com/company/lansarean)

**Euskarazko
lan-ataria**

Lan bila zabilta?

Lana eskaintzen duzu?



baieuskarari.eus

[f](https://www.facebook.com/BaiEuskarariIparaldea) [t](https://twitter.com/BaiEuskarariIparaldea) [i](https://www.instagram.com/BaiEuskarariIparaldea) [y](https://www.youtube.com/BaiEuskarariIparaldea) [..](https://www.linkedin.com/BaiEuskarariIparaldea) [..](https://www.youtube.com/BaiEuskarariIparaldea) [i](https://www.instagram.com/BaiEuskarariIparaldea)

Ziurtagiri bat baino askoz gehiago

Bai Euskarari Elkarteak, lokarri eta eragile

Bai Euskarari Elkarteak 2020-2022 Plan Estrategiko berria landu du. Plan irekia da, egokitzen eta eraikitzen joango dena. Oinarrian, lantaldearekin egin den barne-prozesua baliatu da.

Xedea eta baloreak

Bai Euskarari Elkartearen xedea zehaztu da: Alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko eragitea, komunitatea sustatuz eta tresna, baliabide zein proiektu berritzaileak eraikiz eta partekatuz. Xede horretarantz urratsak ematerakoan balore hauei garrantzia berezia eman zaie: nortasun propioa, independentea, aitzindaritzza, inplikazioa, lankidetzza, entzutea, erantzutea, gertutasuna, malgutasuna, dotorea, ezagutza, berrikuntza eta ekintzailtza.

Foku nagusiak

Elkartearen gaur egungo xedea eta baloreak azaleratuta, etorkizunari begirako foku edo aukera nagusiak identifikatu dira:

- Iparraldearekiko zubiak eraikitzea (Euskal Herri osoan ari gara lanean eta lurralde guztien berezitasunak aintzat hartu behar dira).
- Arlo sozioekonomikoaren behaketa.
- Elkartearen posizionamendua lantzea eta zehaztea aldakorra den testuinguruan, bereizgarriak diren elementuen lanketaren bidez (Bai Euskarari ziurtagiria, konexioak...).
- Alor sozioekonomikoaren aktibazioa proiektuen bidez.
- Harremanak eta lankidetzak bilatzea.
- Lantaldea erdian kokatzea, bere ezagutza balioan jarriz.

Konektatzaile rola

Bai Euskarari Elkartearen elementu bereizgarriena Bai Euskarari ziurtagiria da eta elkartearen zentroan egongo da aurrera begira ere. Horrekin batera, orain arte elkarteak erakutsi du beharrak identifikatuta proiektu berriak sortzeko, esperimentatzeko eta garatzeko gaitasuna duela, bai eta eragile desberdinen arteko loturak lantzeko ere. Aurrera begira, aukera bat identifikatu da hor, alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko eragile bezala. Horretarako lokarri, erraztatzaile edo konektatzaile rola landu eta garatu nahi da, Elkartearen posizionamenduan maila bat igotzeko.

Aurrerantzean ere guztion artean, elkarlanean, euskararen bidea argitzen jarraituko dugu.



GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

#BAIEUSKARARISARIAK

Bordatxo jatetxea, ABB Niessen eta Mertxe Mugika saritu ditu Bai Euskarari Elkarteak, euskarari eta euskararen unibertsuari argia, energia eta indarra emateagatik. Euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi dugunontzat erreferente dira 2019ko sarituak.

Izpiz izpi euskararen bidea argitzen lanean ari diren pertsonak parte hartu zuten Bai Euskarari sariaren ekitaldian. Guztiak dira beharrezko euskararen espazioak geroz eta argiagoak eta dirdiratsuagoak izan daitezten.



2020an ere, jarrai dezagun elkarrekin euskararen bidea argitzen

Ikusi ekitaldiko argazkiak
eta bideo-laburpena:



baieuskarari.eus

